

Ikastetxearen Elkarbizitza Plana

Elkarbizitza Plana ikastetxean elkarbizitza positiboa sustatzera bideraturiko esku-hartzeen plangintza zein haren jarraipena eta ebaluazioa egiteko aurreikusitako jarduerak jasotzen dituen dokumentua da.

[2019-07-02an onartua]

(2019-2022)

ZARAOBE

Aurkibidea

1. Sarrera	
1.1. Ikastetxearen ezaugarriak. Testuingurua	5
1.2. Elkarbizitza Plana prestatzeko jarraitutako prozesuaren deskribapena.	5
1.3. Ikastetxeko bestelako dokumentuekiko lotura	7
2. Elkarbizitzaren definizioa	7
3. Ikastetxeko elkarbizitzaren diagnostikoa	7
4. Helburu orokorrak	9
5. Elkarbizitza-helburuen lorpena sustatzeko egiturak	
5.1. Elkarbizitzaren Behatokia	9
5.2. Bestelako egiturak	10
6. Jarduteko irizpide eta ildo orokorrak	
6.1. Jarduteko irizpide orokorrak	11
6.2. Jarduteko ildo orokorrak	11
7. Elkarbizitza Planaren urteko zehaztapena	12
8. Zabalkundea	12
9. Elkarbizitza Planaren jarraipena eta ebaluazioa	
8.1. Elkarbizitza Planaren jarraipena eta ebaluazioa	13
8.2. Elkarbizitza Planaren urteko zehaztapenaren ebaluazioa	13
10. Eranskinak	13

1. Sarrera

Elkarbizitza plana, ikastetxeko **bizikidetza kudeatzeko dokumentu garrantzitsua** da. Bertan, lortu nahi ditugun **helburuak** eta hauek lortzeko aurrera eramango diren **ekintzak** zehazten dira.

Nahiz eta beti bizikidetza positiboa eraikitzen saiatu zentroan eta esfortzuak egin beratu lortzeko, zuzendaritza berriak, elkarbizitza nola ulertzen dugun definitu eta hau hobetzeko beharrezko ekintzak sistematikoki artikulatzeko unea heldu dela uste du.

Elkarbizitza plana dokumentu estrategikoa da, zentroan bizikidetza positiboa garatzeko nahia agertzen da. Hobekuntza Plana lau urtera begira bezala planteatzen da, zeinetan hasierako diagnostiko batetik abiatuta helburu batzuk ezartzen dira eta helburu hauetara heltzeko beharrezko ekintzak diseinatzen dira. Bere ebaluazioa Urteko Memorian islatuko da.

1.1. Ikastetxearen ezaugarriak. Testuingurua

Zaraobe, Amurrion kokatutako zentro integrala da, DBH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa ematen dira. Bizikidetzaren garrantzia ikastetxeko ikuspegian islatzen da. Zaraobe institutuak, elkarbizitza zibiko eta eskola komunitatearen ongizateak, eskualdean hezkuntza euskaldun erreferentea eta inguruarekin arduratsua izan nahi du.

Zentroak hainbat urtetako ibilbidea du hezkidetzan lanean eta oinarri gisa balio izango digun bizikidetasun plana dauka eta eguneratua, zehaztua eta gehitua izango da. Azken urteetan, hezkuntza komunitateak, bizikidetza hobetzea behar-beharrezkoa dela sentitzen du. Helburuak hauek dira: errespetuzko erlazio positiboak sustatzea, geletako arauak elkarrekin adostea, hezkuntza komunitatearen aldetik gai honetan parte hartze eta inplikazio handiagoa lortzea, berdin arteko tratatu txarrerako zero tolerantzia ...

Helburu hauen lorpenerako sentsibilizaziotik hasiko gara (kontziente izan behar dugu, harreman egokien garrantziaz) eta diagnostikoa(zeintzuk diren arazo nagusiak, puntu beltzak, hobetu beharrekoak, etab.)

Bizikidetasuneko behatokiaren sorrera ezinbestekoa izango da helburuen lorpenerako. Bertan, gurasoak, ikasleak, irakasleak, orientatzailea, zuzendaritzako kideak eta jantoki eta garraioko arduradunak egongo dira. Ikasleen presentzia oso garrantzitsua dela uste dugu, alderdi inplikatu delako eta behatokian parte aktiboa izan behar baitute.

1.2. Elkarbizitza Plana prestatzeko jarraitutako prozesuaren deskribapena.

Bizikidetza planaren elaborazioak honako fase hauek izango ditu:

1. Sentsibilizazio fasea.

Bizikidetza eta hobekuntzarako beharrari buruzko gogoeta bultzatzean datza.

- 2017-2018 azken ikasturtean zehar, zuzendaritza taldeak BIZIKASI-ri buruzko formazioa jaso zuen eta ondoren Berritzeguneko kideak bitan bertaratu ziren zentrora klastroko irakasleak formatzera. 2019ko urtarrilean, zuzendaritzako kideek formazio gehiago jaso dute Durangon.
- Bizikidetasuna, zuzendaritza talde berriaren proiektu garrantzitsu bezala agertzen da.
- Ikastetxeko zuzendaritzak, orduz dohatu du elkartzeko eta bizikidetza lantzeko (2 ordua astean, asteazkenetan).
- Bizikidetasun kompetentzia programazio guztietako zeharkako kompetentzia bezala sartuta dago eta departamentu desberdinek zehatzago nola landu daitekeen eztabaidatu dute(helburu eta ekintzekin lotuz, ebaluaziorako errubrika erabiliz ...)
- Urrian, ikasleriak jantokiko jarrera egokiari buruzko hitzaldia izaten du.
- Bizikidetzako bi arduradunek DBH 1. Mailan hitzaldiak eman dituzte honen inguruan.
- Web orrian, bullying kasuak modu anonimoan salatzeke gunea sortu da.
- Amurrioko Udaleko bitartekariak bizikidetza behatokiaren parte diren ikasle eta irakasleei Gatazken konponbidean prestakuntza ematen die.
- IGE-k hainbat hitzaldi eskaintzen ditu.

2. Diagnostikoaren fasea.

Bizikidetasunaren analisiari ekiten dio sakontasunean (zer gertatzen den, zergatik, zer hobetu behar dugun, zer espero dugun ...)

- Bigarren hiruhilabetekoan zehar kolektibo bakoitzari inkesta bat pasatzen zaio (irakasleagoa, ikasleagoa, familiak ...) egungo egoeraren diagnostikoa egiteko balio diguna eta arazoak sortzen dituzten aspektuak zeintzuk diren definitu, baita berauek konpontzeko argibideak eman diezaguke.
- Behatokian dagoen ikasleria gatazken konponbidean formatzen da, baita hauen detekzioan ere.

3. Helburuen definizio eta zehaztapena eta ekintzen planifikazioa.

Helburuak ezarri eta ekintzak planifikatzen dira eta bizikidetza hobetzeko irizpideak zehazten dira. Elkarbizitza plana editatzen da eta gero onartu eta hezkuntza komunitate guztiari helarazten da. Gainera, zentroko web orrian zintzilikatzen da.

4. Jarraipena eta ebaluazioa.

Helburuak eta lorpen adierazleen arteko erlazioak aztertzen dira. Bizikidetza arazoak dituzten pertsonen jarraipen zehatza egiten da. Hobekuntza posibleak islatzen diren txosten bat idazten da.

1.3. Ikastetxeko bestelako dokumentuekin duen lotura

Dokumentu hau AJA (Araudia eta Jarduera Antolakuntza) eta IUParekin (Ikastetxearen Urteko Plana) lotuta dago. Tutoretza Planak laguntza handia izango du ikasleekin lan egiteko jarduerak ezartzeko orduan.

2. Elkarbizitzaren definizioa

Elkarbizitza positibo batean egotea, norbera bere buruarekin bat partekatzea eta harremanean jartzea da (autoestimua, emozioen kontrola), baita beste pertsonekin (enpatia), parte-hartzea, aurreratzea eta besteekin batera ikastea. Elkarbizitza positiboa lan bukaezina da, egunez egun egin beharreakoa non baieztapena, errespetua eta tolerantzia eskatzen duen, injustizien ukapena eta mundu berri baten eraikuntza. Horretarako, balioen eta emozioen bidez hesitzea funtsezkoa da.

3. Ikastetxeko elkarbizitzaren diagnostikoa

Gure ikastetxeko elkarbizitzaren egoerari buruzko datuak jasotzeko prozesuan, erabili behar ziren tresnak erabili ziren, eta alderdi hauei buruzko iritziak jaso ziren:

- Ikasgeletan eta, oro har, ikastetxean bizi den elkarbizitza-giroa.
- Irakasleen eta ikasleen arteko harremana, ikasleen artekoa, irakasleen eta familien artekoa, irakasleak ez diren langileen eta familia edo ikasleen artekoa, irakasleen eta irakasleak ez diren langileen artekoa.
- Ikastetxean edo ikasgeletan jasotako araei buruzko gogobetetze- edo desadostasun- maila eta betetze-mailari buruzko iritzia.

- Dagoeneko ezarri diren jarduerak (ikasgelako bilerak, Tutoretza Jarduerako Plana, iradokizunen postontzia, zuzendaritza-taldearen, irakasleen, irakasleak ez direnen, ikasleen edota familien arteko komunikazio-kanalak, elkarbizitza sustatzeko eskolaz kanpoko jarduerak, etab.)
- Irakaskuntza-estilo edo –jarduerak, denen partaidetza sustatzen duten irakaskuntza-metodologiak eta –ikuspegiak.
- Irakaskuntza-estilo edo –jarduerak, denen partaidetza sustatzen duten irakaskuntza-metodologiak eta –ikuspegiak.
- Eta abar.

Diagnosi fase egin eta gero esan dezakegu ahuleziak dauzkagula baina elkarbizitza giroa ez dagoela hain txarto. Hainbat eremu landu dira ondorio honetara heltzeko: Hezkuntza-politika, elkarbizitzaren antolakuntza eta kudeaketa, gatazken eraldaketa, partaidetza, emozioak eta sentimenduak, irakatsi eta ikasteko prozesua eta irakaslan-estiloa. Aspektu batzuk oso indartsu baloratu izan ditugu eta horrela lantzen jarraitu beharko ditugu eta beste batzuk, ordea, ahulagoak agertu dira, beraz, horiek landuko edo zuzenduko ditugu.

ALDE INDARTSUAK:

- Gatazkek konpontzeko kezkatuta gaude eta **ahaleginak** egiten dira (zuzendaritza, tutoreak, irakasleak ...).
- Talde lanak, erronkak, hitzaldiak, irteerak ... ondo baloratu daude.
- Ikasturteko hasierako bilerak (tutoreak, IGE ...) ondo baloratzen dira.

AHULEZIAK:

- **Errespetua** indartu behar da. Klasean lan giroa egon behar da, isiltasuna eta ordena.
- Ikasleengan **konfiantza** sendotu behar da. Horrez gain entzunak eta kontuan hartuak izan behar dira.
- **Parteak** jartzeko ohitura aztertu behar da.
- Batzuetan **tratu berdintasuna** falta da.
- Guztion arteko **komunikazioa** eta **partaidetza** asko landu behar da.
- Irakasleen arteko komunikazioa falta da eta ere irakasleen eta ikasleen artean. Familiekin eta irakasleak ez diren langileekin erlazio gutxi izateak, hezkuntza komunitatean gutxiespen bat izatea bultzatzen du, haien parte-hartzea eta errespetatua murriztuz.
- **Aniztasuna** gehiago hartu behar dugu kontuan.
- Ikastetxeko **arauekin** batera joan behar gara. Arauak gogoratu eta betearazi egin behar dira, guztion inplikazioa beharrezkoa izanda.
- Talde-lan gehiago falta da (ikaslegoarena, irakaslegoarena, gurasoekin...)

4. Helburu orokorrak

Hezkuntza komunitateko iritzi ezberdinak aztertu ondoren, sakondu beharreko aspektu ezberdinak zeintzuk diren erabaki ziren, eta horrek ondorengo helburu orokorretan garapenean eragina izan du:

- **Elkarbizitzarako giro positiboa sortu** non komunitateko kide guztiak parte hartzaileak diren sentituko diren.
- Lantzea eta, beharrezkoa denean, ikastetxeko **elkarbizitzako arauak aztertu** era bateratu **eta adostu** batean ikastetxeko harreman positiboak indartzeko. Irizpideak araei dagokienez bateratzea. Eskubideetako 201/2008 Dekretuaren arabera jokaera desegokien aurreko esku-hartze jarraibideak eta ikasleen Betebeharrak ezartzea.
- Elkarbizitza positibo eta gatazka konponbideekin erlazioa duten **formazioak** proposatu eta antolatu (interkulturalitatea, aniztasun afektibo-sexuala, hezkuntza emozionala, gatazken gestioa, hobekuntza jarreretan, ...), ikastetxeko estamentu guztietara zuzendurik, non gaitasun eta errekurso komunak hornituz ikastetxeko eragileei elkarbizitza aktiboa emanaz.
- Hezkuntza-komunitateko estamentu guztien eta inguruko beste kanpo-eragile batzuen **partaidetza eta komunikazioa** sustatzea.
- Ikaslearen eta ikastetxeko **parte-hartzea** sustatu **elkarbizitzarako gestioko** ikasgelan eta zentroan. Alor honetako esku hartzeak sistematizatzea.
- Zeharkako era batean lortu; lan egitea, aintzat hartzea eta ebaluatzea **elkarbizitzan aritzen ikasteko konpetentzia** arlo eta materia guztietan.

5. Helburuen lorpena sustatzeko egiturak

5.1. Elkarbizitzaren Behatokia

Elkarbizitzarako Behatokiak instrumentu bezala balio digu ikastetxeko elkarbizitza **ezagutzeko, aztertzeko eta ebaluatzeko**. Horretarako, ikasleen arteko gatazkek batuko

dira; arrazoia, lekua, bullying kasuak, ikasle-irakasle arteko gatazkak; arrazoia, eta nola konpondu, gurasoak aurkitzen diren gatazkak, etab.

Behatokiko partaideak, urtean, **gutxienez hiru bider** elkartuko dira ebaluazio bakoitzaren bukaeran eta jangela aurreko orduan.

Behatokia ondorengoek osatzen dute:

Ikasleak: Andoni D., Zuenouha M., Richis O., Izaro A., Gorane G., Ana I., Julene G, Erika M.

Amak: Jasone I. eta Iraida S.

Irakasleak: Flora C., Joseba I., Nere N.

Ikasketa buru ondokoa: Jasone P.

Orientatzailea: Itziar C.

Garraio eta jantokiko arduraduna: Isabel M.

5.2. Beste egitura batzuk

Behatokiaz gain, ikastetxe honetan elkarbizitzaren kudeaketarako lagungarri izango den beste egitura bat sortu da: **Elkarbizitza Batzordea**. Bi talde hauek elkarren artean egingo dute lan. Behatokiko kideak, Bitartekaritzako eta Gatazkak Jorratzeko taldeko partaide berberak dira. Aurretik aipatutako irakasleak dira, orientatzaile eta ikasketa buruarekin bat.

Bullying-eko kasuen konponbideei aurre egiteko erantzukizuna izango du elkarbizitza positiboa indartuz. Elkarbizitza larriki eragiten duten jarreraren aurrean, proposamen ezberdinak egingo ditu. Bi talde hauek, arazo posible ezberdinen aurrean jokatu beharreko neurriak planteatuko ditu baita zigortuak izan diren horien aurrean.

Horrez gain, Elkarbizitza Plana eguneratu eta antolatuko du. Baita, bilera ezberdinak antolatuko ditu eta prebentziorako eta sentsibilizaziorako lanak egingo ditu. Iritzi eta hobekuntza ezberdinak jasoko ditu, formakuntzak antolatu, Elkarbizitza Planaren ebaluazioa eta memoria aurrera eramango du, etab.

Horrez gain, elkarbizitza kudeatzeko kontuan hartu behar ditugu:

- **Tutoreak:** talde bakoitzak bere tutorea behar du, eta tutore-ekimenak gauzatzeko erabili behar da tutoretza ordua, elkarbizitzari loturiko jardunbideak barne.
- **Tutore taldea:** maila bakoitzak bere tutore-taldea behar du, eta astero bildu behar dute orientazio mintegiarekin.
- **Delegatuen Batzordea:** Helburua, eskolako funtzionamenduaren funtsezko osagai bihurtzea, zuzendaritzaren eta ikasleen arteko loturarena egin dezaten. Jorratuko dituen gaiak interes orokorrekoak izango dira: eskolako jaiak, institutuko espazioen erabilera, ikasleen proposamenak ...

Ez dugu ahaztu behar, elkarbizitza ikastetxeko kide guztion erantzukizuna dela (ikasleak, irakasleak, familiak, irakasleak ez direnak, ...) eta elkarbizitzako giro on bat sortuz gero denoi onuragarri egiten digu.

6. Jarduteko irizpide eta ildo orokorrak

6.1. Jarduteko irizpide orokorrak

Hezkuntza–komunitate osoak kontuan izango ditu jarduteko irizpide orokor hauek:

- **Elkarbizitza positiboren** sustapena **esparru guztietan** eta curriculumeko arlo eta ikasgai guztietan egingo da.
- Elkarbizitzaren araudiari buruzko erabakiak hartzeko **partaidetza** lehenetsi behar da.
- **Arauek eta erabakiak** denon eskubideen eta ongizatearen bermea sustatzen duten elementuak izango dira, eta hala ulertu eta partekatuko ditu **komunitate osoak**.
- Gatazkak konpontzeko lehentasunezko prozedurak **kontziliazioa eta konponketa** izango dira.
- Ikasleek gatazkak kudeatzeko duten modua kontuan izango da arlo eta ikasgai guztietako **elkarbizitzarako gaitasunaren** ebaluazioan.
- **Jazarpen-kasuen** aurrean inolako **tolerantziarik ez**.

6.2. Jarduteko ildo orokorrak

- Lehentasunezkoak izango dira ikastetxeko bizimoduan **partaidetza** sustatzeko jarduerak, hala nola, ikasleen aldetik (ordezkarien batzarra, ikasgelako bilera, OOG eta Behatokian parte-hartzea...), familien aldetik (Guraso Elkarteak, OOG

eta Behatokian parte-hartzea) eta irakasleen aldetik (klaustroa, sailak / zikloak, OOG,Elkarbizitzaren Behatokia...).

- Era berean lehentasuna izango dute **komunikazio-kanal** argi eta eraginkorrak mantentzera bideratutako jarduerak, hala nola, zuzendaritzaren eta klaustroaren arteko komunikazio-kanala, zuzendaritzaren eta irakasleen artekoa, irakasleen eta ikasleen artekoa, irakasleen eta familien artekoa ...
- **Tutoretza-jarduerako planak** ere lehentasuna izango du: banakako tutoretza eta taldeko tutoretza, talde-kohesioa lortzeko estrategiak, hezkuntza emozionala eta gizarte-trebetasunetan.
- Ikasleen artean elkarreragin positiboak sustatuko dituzten **metodologiak** erabiliko dira, ikasteko modu desberdinei erantzun, eskola inklusiboaren printzipioa errespetatu eta ikasle guztien arrakasta lortuko dutenak.
- **Bullying-a eta ziberbullying-a** berariaz landuko dira.
- Irakasle, ikasle, familia eta irakasleak ez diren langileei zuzenduriko **prestakuntza-planak** garatuko dira, gatazkari eta kudeatzeko moduari buruzko hezkuntza-ikuspuntuaren inguruan.

7. Elkarbizitza Planaren urteko zehaztapena

Urtero lez, **gutxienez helburu bat** gehitu beharko da **ikastetxeko Urteko Planean**. Helburu hori zentroko elkarbizitzarako hobekuntzarekin erlazionatua izango da eta Elkarbizitza Planetik aukeratuko da.

Beste urteko helburuekin batera, ekintza ezberdinak antolatu eta garatuko dira helburu horiek betearaziak izateko. Horrez gain, ekintzen garapeneko eta jarraipeneko arduradunak identifikatuko dira; denbora, errekurtsoak eta adierazleen zehaztapenen jarraipena eta lorpena. Helburu horien ebaluazioa kurtso bukaerako memorian islatua izango da eta hurrengo urteko ikasturteko elkarbizitzako helburuen formulazioan kontuan hartuko da.

Urtero moduan, Elkarbizitzako Behatokiak elkarbizitzarako helburuen iradokizunak egingo ditu, ekintzen diseinu eta jarraipenean parte hartuz.

8. Zabalkundea

Eskola Kontseiluak Elkarbizitza Plana onartu eta gero, estatu guztietara zabalduko du eta ikastetxeko web orrian islatuta geratuko da.

Elkarbizitza Planean prozedura ezarriko da (1. eranskina) eskola-jazarpenerako protokoloa ezagutarazteko eta haiei aurre egiteko argibideekin.

9. Elkarbizitza Planaren jarraipena eta ebaluazioa

9.1. Elkarbizitza Planaren jarraipena eta ebaluazioa

Elkarbizitzako Behatokiak, zentroko zuzendaritza taldearekin bat, gutxienez **lau urtetik behin**, **Elkarbizitza Planaren** ebaluazioa sortuko du ondorengo aspektuak aintzat harturik; hezkuntza komunitateak Elkarbizitza Planaren inguruan duen **ezagutza** maila; **difusio** eta sentsibilizazio prozeduraren efikazia; Elkarbizitza Planaren **martxa** jartzea eta kasuen analisia; komunitatearen **beharrak** eta ezaugarriak; elkarbizitzaren eboluzioa; Elkarbizitza Planaren helburuen jarraipena eta **ebaluazioa**.

9.2. Elkarbizitza Planaren urteko zehaztapenaren ebaluazioa


Urteko ebaluazioan antolatutako eta zehaztutako helburuak **zuzendaritzako taldearen** erantzukizuna izango da eta beraiek izango dira Elkarbizitzako Behatokiari informatuko dietenak. Bertan sortutako ebaluazioa **urteko memorian** islatuta geldituko da. Memoria honetan, lortutako helburuen analisia egingo da, eta berarekin batera hurrengo ikasturteari begiraturiko helburuen hobekuntzak zehaztuko dira; urtean zehar elkarbizitzako egoeren datuak, organizazioarekiko aspektu berriak, kurrikularrak, funtzionamenduzkoak, Elkarbizitza Planeko aspektuen aldaketa berriak, etab.

10. Eranskinak

- 1. eranskina: Eskola jazarpen posible baten aurrean zentroak jarraitu beharreko jokaera protokoloa.
- 2. eranskina: Elkarbizitzako; emaitzak inkestak diagnostikoa 2018-2019. (ikastetxean begiratu)
- 3. eranskina: Elkarbizitzarako neurri orokorrak.
- 4. eranskina: 2019-2020 ikasturtean garatuko diren helburuak.
- 5. eranskina: Elkarbizitza Planeko aktaren onarpena. (ikastetxean begiratu)

1. ERANSKINA: Eskola jazarpen posible baten aurrean zentroak jarraitu beharreko jokaera protokoloa.

ESKU-HARTZEAREN FASEAK AZALTZEN DITUEN ESKEMA



ESKOLA JAZARPEN KASUETAN IKASTETXEETAN JARDUTEKO GIDA:

3. ERANSKINA: Elkarbizitzarako neurri orokorrak

ELKARBIZITZA HOBETZEKO NEURRI OROKORRAK (bereziki DBHko 1go zikloan):

GELA BAKOITZEAN.

- 1.- Mahaiak ilaran mantentzea.
- 2.- Gela garbi mantentzea.
- 3.- Gelako materiala zaindu eta errespetatzea: pertsianak, mahaiak, mahai azpiak ...
- 4.- Zakarrontzi desberdinei erabilera egokia ematea.
- 5.- Jarrera zuzena izan, jarrera eta ahots tonua zainduaz.
- 6.-Gelan ezin da ez jan eta ez edan. Txiklea ere ez.
- 7.- Lan giroa arlo guztietan mantentzea.
- 8.- Irakaslea gelatik ateratzen azkena izango da eta gela giltzaz ixteaz arduratuko da.
- 9.- Ahal den guztietan irakasleak hurrengo irakaslearen etorrera gela barruan egingo du.
- 10.- Ezin da gelatik atera txirrinak jo arte.
- 11.- Faltako den irakasleak lana utziko du.
- 12.- Ikasle bat kanporatzen bada, parte eta lanarekin joango da Z1era.

GELEN TARTEAN

- 1.- **Puntualitatea** guztion ardura da.
- 2.- Ezin da pasabideetara irten.
- 3.- Komunera joateko arauak bete. DBHko 1. zikloko komunak tartetean itxita daude. Irakastorduetan irakaslearen baimenarekin erabili.

4.- Zaintza irakasleak, zaintzan zehar (hasiera-erdia-amaieran) zentroan zehar bueltatxoak eman beharko ditu institutuan zehar dena zuzen dagoela ziurtatzeko.

TUTORETZAN

- 1.- Ikasgela txukundu.
- 2.- Beharrak ase.
- 3.- Talde lana landu.
- 4.- Parte-hartzea sustatu.
- 5.-Arauk balioetsi eta betearazi.

OSAGARRIAK, IRTEERAK, BIDAIAK ...

- 1.- Jarrerak beti egokia izan behar du.
- 2.- Errespetua ezinbestekoa da.
- 3.- Jarrera desegokien aurrean, nahiz eta ikastetxetik kanpo gertatu/izan, ikastetxeko araudia aplikatuko da.
- 4.- Jarrera desegokia duten ikasleek, ikastetxeak antolatzen dituen ekintzetan parte hartzeko eskubidea galduko dute ekintza desegokien kopuru eta larritasunaren arabera.

JANGELA

- 1- Ezin daiteke jantokitik janaririk atera.
- 2- Ez da jangelako girotik at dagoen jarrerarik onartuko.
- 3- Esleitutako ordutegiak eta txandak errespetatzea ezinbestekoa da.
- 4.- Zerbitzua jasotzen duten ikasleek ikastetxean egon beharko dute, berariazko baimena izan ezik.
- 5.- Huts egiteak justifikatu behar dira. Horretarako, zentroko eredia erabiliko da.
- 6.- Eguerdian jangelan geratzen den ikasleak, ikastetxeko araudia errespetatu behar du.

7.- Ikastetxeko espazio guztietan arduradunen arauak errespetatuko dira.

8.- Bazkal orduko tartean gelak giltzaz itxiak egon beharko dira.

9- Arauak onartu ezean, ondorioak onartu beharko dira (jantokira joatearen aukera galtzeko arriskua).

GARRAIOA

1.-Eserita eta segurtasun uhala jarrita eramatea derrigorrezkoa da.

2.-Debekatuta dago jatea eta edatea.

3.-Altzariak zaindu eta garbi mantendu beharko dira.

PATIOA

1- Atsedenaldira patiora edo liburutegira joan beharko dute, bertara isilik eta bultzatu gabe joango dira.

2- Arduradun desberdinen esandakoei kasu egingo zaie ikastetxean.

3.- Elkarbizitza kaltetuko duen jarrerarik ez da onartuko.

4.- Berariazko baimenik gabe, atsedenaldira ikasleak ezin izango dute ikastetxetik atera.

5.- Zaintzan dagoen irakasleak patioa amaitu baino pixka bat lehenago DBHko lehenengo zikloko gelak ireki beharko ditu, eta ikasleriak zuzenean joan beharko du haietara atsedenaldira bukatu bezain laster. Beharrezkoa da irakaslegoa dagoeneko geletan egotea.

6.-Patioaren zaintza eta mantenua guztion ardura da

LIBURUTEGIA

1.- Erabilera emango zaio: Irakurtzeko (bertako liburuak nahiz norberarenak), etxeko lanak egiteko, lanak egiteko, ikasteko, edo ordenagailuak erabiltzeko.

2.- Liburutegia erabiltzen duen ikasleak ezin izango du pasabideetan gora eta behera ibili, hori dela eta behin hara bertaratuta, txirrina jo arte liburutegian egon beharko du. .

3.- Liburutegian isiltasunaz gain, errespetua izan behar da.

4.-Erabiltzen den materiala (liburuak, entziklopediak ...) bere lekura itzuli behar da, modu txukun batean utziz.

5.- Ordenagailuak erabili eta gero, beti itzali egin behar dira.

Hori guztiaz gain, mugikorraren erabilera zentro guztian zehar debekatuta dago, irakasleriak espresuki emandako kasuetan izan ezik.

ELKARBIZITZAREN EGUNEROKO KUDEAKETA.

Gizakiok, gizartearen zati bat gara eta beste gizaki batzuen konpainian bizi behar dugu. Horretarako, ezinbestekoa da oinarrizko arau batzuk errespetatzea, enpatia izatea eta besteen eskubideak errespetatzea. Horregatik, diziplina baikor baten beharra dago. Ikasleek, komunikaziorako, errespeturako eta haien artean sortu daitezkeen harremanetarako tresnak behar dituzte. Arlo orotan, lan giroa sustatu, araudia betearazi, ikasleria guztiaren parte-hartzea, irakasleriaren arteko koordinazioa, eta jarrera desegokien aurrean hezkuntza neurriak kudeatu beharko dira.

Irakasle bakoitzak zuzenak ez diren jarrerak zuzendu beharko ditu. Beharrezkoa izanez gero, partea idatzi, gurasoei deitu eta tutoreari jakinarazi. Geroago tutoreak ikasketa burutzan parteak utziko ditu.

Ikaslea ikasgelatik **kaleratua** izaten denean, **zaintza gelara** joan beharko du eta bertan irakasleak agindutako **lana** burutu beharko du. **Partea** eramango du **beti**.

Egoera **oso larria** izanez gero **Ikasketa Burutzak** kudeatuko du. Kasu hauetan ikasleak gertatutakoaren ikuspuntua idatziz egingo du.

Jarrera positiboak indartuko dira, jarrera zuzenak ikastetxean bertan sustatuaz.

Neurri hezigarriak aplikatzerakoan ondorengo irizpideak izango dira kontutan hartuak: Sortarazitako kalteak, sortutako min edo kalteak erreparatzera bideratuak izatea. Hautsi/bete den arauarekin harreman zuzena izatea. Errealista eta bete ahal izateko aukerak izatea. Pertsonen eskubideak errespetatzen dituela bermatzea. Hau guztirako, **201/2008 Dekretua** aplikatuko da, **ikasleen Eskubide eta betebeharez** diharduena, eta aldi berean ikastetxeko **AJA**n idatzita dagoena.

4. ERANSKINA: 2019-2020 ikasturtean garatuko diren helburuak

Helburuak	Jarduerak	Ardura- agenteak	Denboralizazioa	Baliabideak	Ebaluazioa: adierazleak eta datak
<p>1 Ikastetxean bizikidetza positiboa duen giroa sortu, non komunitateko kide guztiak partaide sentitzen diren.</p>	<p>Bizikidetzaren behatokiko bilerak.</p> <p>Ikastetxea moldatzea eta txukuntzea elkarbizitzarako giro on bat lortzeko.</p> <p>Patioaren aldaketa. Jarraitzea iazko proiektuarekin.</p>	<p>Ikasleak, irakasleak, familiak, irakasleak ez diren langileak, Zuzendaritza</p> <p>Patioa eraldatzeko sortu den taldea. Ikasleak.</p>	<p>Bilerak: Kurtso hasieran. Ebaluazioa bakoitzaren ostean.</p> <p>Kurtsoan zehar</p>	<p>Bizikasiren materiala</p>	<p>Ikasturtean zehar 3 bilera gutxienez egin dira. Aktak.</p> <p>Ikasleen balorazioa inkestetan.</p>
<p>2- Elkarbizitza positiboa eta gatazken konponbidearekin lotutako alderdiei buruzko prestakuntza proposatu eta planifikatu</p>	<p>Formakuntza:</p> <p>Gatazken konponketa inguruko formakuntza zehatza.</p> <p>Guraso elkarteak (IGE) antolatutako elkarbizitzarekin harremana duten hitzaldiak.</p> <p>Tutoretza Planean zehaztutako ekintzak elkarbizitza garatzeko.</p>	<p>Amurrioko bitartekaria (irakasleekin, ikasleekin).</p> <p>Guraso elkarteak</p> <p>Tutoreak, orientatzailea</p>	<p>Kurtso hasieran</p> <p>IGEko hitzaldiak (kurtsoan zehar)</p> <p>Kurtsoan zehar</p>	<p>IGEko hitzaldien powerpointak web orrialdean.</p> <p>Zinhezba, Berdindu tailerrak, Hitz kolpez, AGLE...</p>	<p>Formakuntzaren balorazioa inkestetan bidez, kurtso amaieran.</p>

<p>3-Errespetuan oinarritutako harremanak sustatu.</p>	<p>Ekintza osagarriak eta jaiak: San Tomas, Bizikleta eguna... Kurtso hasieran elkarbizitzari buruzko hitzaldia DBH1ean. Kurtso hasieran jantokiri buruzko hitzaldia. Ikastetxe eta gelako arauak. Bullying posontzia ezaguraztea.</p>	<p>Irakaslegoa, ikaslegoa Elkarbizitza taldea, ikaslegoa Tutoreak, ikasleak Elkarbizitza taldea, tutoreak</p>	<p>Kurtsoan zehar. Abenduan, amaieran... kurtso Irailean, urrian</p>	<p>Powerointak Arbela, AJA... Web orrialdeko bullying postontzia</p>	<p>Ikasleriaren %75a hartzen du parte. Jardueraren memoria.</p>
<p>4-Intzidentziak edo jarrera desegokien kudeaketa hobetu.</p>	<p>Ikastetxeko eremu ezberdinetan sortzen diren intzidentzia esanguratsuak, erregistroan jaso. Gatazken aurrean lehenetsi neurri hezitzaileak, zuzentzaileak baino. Ikastetxeko eta ikasgelako araudiaren garapena, indarrean dagoen araudiaren arabera. Parteen kudeaketa tutoreen bidez.</p>	<p>Ikasketa burutza Irakaslegoa eta tutoreak</p>	<p>Behar denean AJA eguneratu: 3. hiruhilabetean.</p>	<p>Ordenagailuak 201/2008 Dekretua, Ikasleen eskubideei eta beharrei buruzko (2008-12-16) AJA Hausnartzeko fitxak, ipuinak, lanak... Berritzeguneko materiala. Arloko programazioak</p>	<p>Intzidentzien erregistro gaurkotua. Parte kopurua gutxitu da pasa den urteko kopuruarekin konparatuta. Tutoreen inplikazioa gatazken kudeaketan. AJAren errebisioa (aldaketak) egin da. Eskola komunitate osoak eskura du jakitea bullying protokoloak zertan datzan. Bullying postontzia</p>

	Programazioak elkarbizitza ikuspuntutik gauzatu.				erabili da.Neurri zuzentzaileen aplikazioa murriztu da, neurri hezitzaileak erabiliz. (espediente eta parte kopurua)
5-Laguntza eta komunikaziorako bideak ezarri eta sustatu.	Familiei komunikaziorako bideak azaldu: Tutoreekin batzarra, Web orrialdea... Ikasleekin komunikaziorako bideak ipini: Tutorea, Orientatzailea ...	Tutoreak, zuzendaritza Tutorea, Orientazio Mintegia	Urrian	Tutoretza saioak.	Familienu %75 asebetetasun inkestan balorazioa positiboa egiten dute.
6-Leku eta momentu gatazkatsuak aurreikusi eta ondo kudeatu.	Leku eta momentu gatazkatsuak mugatu: sarrerak, komunak, gela, atsedena, dia, jantokia, liburutegia, garraioa... Neurri prebentiboak ezarri (ikus 3. eranskina)	Zuzendaritza, irakasleak, begiraleak... Atezainak, irakasleak Irakasleak	Kurtsoaren hasieran eta kurtsoaren zehar.	Elkarbizitza plana	Gatazkak gutxitu dira.

